



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

“BARDINTASUNAREN INGURUAN BERBETAN” BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAN

- **Jule Goikoetxeak, “Demokrazia Patriarkala EAEn” azterlanaren gakoetako batzuk azaldu ditu Batzar Nagusietako Lehendakariaren, batzarkideen eta beharginen aurrean.**

(Bilbon, 2019ko azaroaren 21ean).- Bizkaiko Batzar Nagusiek beharrean jarraitzen dabe Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako I. Planaren helburuak beteteko. Gaur, “Bardintasunaren inguruan berbetan” izeneko beste bilera bat jaso dabe. Bertan, Jule Goikoetxea filosofo politiko eta aktibista feministak egin dau berba. “Demokrazia Patriarkala EAEn” azterlanaren egileetako bat da, Zuriñe Rodríguezegaz, Lore Etxeberriagaz eta Estixu Garaigaz batera. Goikoetxeak estadistiken eta emakumeen eretxien bitartez erakutsi dau bardintasuna gure gizartean urrun dagon errealitatea dala oraindino.

Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakaria izan da bileraren buru, eta bertan Batzarretako taldeetako (Euzko Abertzaleak, EH Bildu, Euskal Sozialistak eta Elkarrekin Bizkaia) ordezkariak eta bertako beharginak hartu dabe parte.

Goikoetxeak patriarkatuaren dimentsioen eta mekanismoen ganean egin dau berba eta, azpimarratu dauenez, horreek hiru indarkeria moeta ekarten ditue: zuzena, materiala eta sinbolikoa. Euskadiko Autonomia Erkidegoan bizi diran emakumeen ongizatean, ahalduntzean eta demokratizazioan patriarkatuak dituan ondorioak azaldu ditu.

Emon dituan datu ugarien artean, gizonen eta emakumeen artean seme-alaben zainketan dagon banaketarena azpimarratu daiteke. Emakunderen datuek erakusten dabenez, 2015ean, Euskadiko gizonen %4,5ak hartu eban aitatasunarengaitiko prestazinoa, eta amatasunarengaitik prestazinoa hartu eben emakumeak %95,5 izan ziran. Modu berean, seme-alabak zaintzeko laneko eszedentzien banaketan be alde handiak dagoz; urte bereko datuetan: %95,3 emakumeak eta %4,7 gizonak.

Pentsalari eta aktibista feministak alderdi politikoetan, sindikatuetan eta gizarteko mobimenduetan dagozan hartu-emon patriarkalen inguruan be egin dau berba, eta hainbat alderditako euskal emakume politikari ezagunen adierazpen batzuk nabarmendu ditu. Bat datoz oraindino gizonen nagusitasuna larregikoa dan ingurunean lan politikoa aurrera erroteko erresistentziak aitatzeke orduan.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

“CONVERSANDO SOBRE LA IGUALDAD” EN LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA

- **Jule Goikoetxea ha desgranado algunas claves del estudio “La Democracia Patriarcal en la CAV” ante la Presidenta, apoderadas y apoderados y personal de la Cámara Foral.**

(Bilbao, a 21 de noviembre de 2019).- Las Juntas Generales de Bizkaia continúan trabajando para cumplir los objetivos del I Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres. Hoy han acogido una nueva reunión titulada “Conversando sobre la Igualdad” y en la que ha participado como ponente la filósofa política y activista feminista Jule Goikoetxea. Coautora del estudio “La Democracia Patriarcal en la CAV” junto a Zuriñe Rodríguez, Lore Etxeberria y Estitxu Garai, Goikoetxea ha demostrado con estadísticas y opiniones de mujeres que la igualdad aún es una realidad lejana en nuestra sociedad.

Ana Otadui, Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, ha encabezado el encuentro en el que han participado representantes de los grupos junteros Nacionalistas Vascos, EH Bildu, Socialistas Vascos y Elkarrekin Bizkaia, así como trabajadoras y trabajadores de la Cámara Foral.

Goikoetxea ha hablado de dimensiones y mecanismos del patriarcado que, según ha destacado, desembocan en tres tipos de violencia: directa, material y simbólica, y ha explicado qué consecuencias tiene el patriarcado en el bienestar, el empoderamiento y la democratización de las mujeres que residen en la Comunidad Autónoma Vasca.

Entre los numerosos datos que ha aportado, los del reparto entre hombres y mujeres del cuidado de sus hijos e hijas. Según datos de Emakunde, en 2015, el 4,5% de los hombres vascos se acogieron a la prestación de paternidad, frente al 95,5% de las mujeres con prestación de maternidad. Igualmente, las excedencias laborales para el cuidado de hijos e hijas se reparten aún muy desigualmente; en datos de ese mismo año: 95,3% mujeres y 4,7% hombres.

La pensadora y activista feminista ha hablado también de las relaciones patriarcales en partidos políticos, sindicatos, movimientos sociales y ha destacado algunas declaraciones de conocidas políticas vascas de diferentes partidos que coinciden en las resistencias que encuentran para desarrollar su trabajo político en un entorno aún demasiado masculinizado.